

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 2803

*AGINDUA, 2022ko maiatzaren 25ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, goi-mailako kirolariak, teknikariak eta epaileak deklaratzeko dena.*

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretu horretan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorrituz, eta dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari eta goi-mailako epaileen izaera honako hauei emango die: nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu, eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen deklarazioak lehen aipaturiko dekretuaren artikuluetan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, dagokion proposamena egin zuen.

Ondorioz, hauxe

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I. eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin. Era berean, II. eranskinean agertzen diren pertsonen eskaerak ukatzen dira, bertan jasotzen diren arrazoietan oinarrituta.

Bigarrena.– Deklarazioak agindu hau argitaratzen den egunetik izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epearen barruan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Argitara bedi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 25a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

2022ko ekainaren 21a, asteartea

## I. ERANSKINA

## GOI-MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILE IZENDATUTAKOEN ZERRENDA

NAN	Esp. Zenbakia	Modalitatea	Kategoria
44568173S	893/21/D	Piraguismoa	Kirolaria
72502337N	895/21/D	Surfa	Kirolaria
15395944C	903/22/D	Kirol egokitua	Kirolaria
44572963K	897/21/D	Piraguismoa	Kirolaria
44572962C	898/21/D	Piraguismoa	Kirolaria
72507336C	902/22/D	Beisbola eta Softbola	Kirolaria
45949501D	916/22/D	Errugbia	Kirolaria
72516419H	921/22/D	Mendia	Kirolaria
72492521V	896/21/D	Piraguismoa	Kirolaria
49577798X	846/21/D	Surfa	Kirolaria
72508551Q	934/22/D	Neguko kirolak	Kirolaria
72851142E	923/22/D	Kirol egokitua	Kirolaria
72553905Z	907/22/D	Errugbia	Kirolaria
72843605Y	908/22/D	Errugbia	Kirolaria
78932252R	909/22/D	Herri kirolak	Kirolaria
73266268K	914/22/D	Surfa	Kirolaria
72545126K	936/22/D	Kirol egokitua	Kirolaria
72516639P	937/22/D	Piraguismoa	Kirolaria
72739737Y	925/22/D	Atletismoa	Kirolaria
79076083J	913/22/D	Taekwondo	Kirolaria
72606914P	906/22/D	Neguko kirolak	Kirolaria
78872112Y	911/22/D	Triatloia	Kirolaria
20234672P	939/22/D	Arrauna	Kirolaria
72608515F	929/22/D	Tenisa	Kirolaria
72506343Q	922/22/D	Eskubaloia	Kirolaria
44163207X	927/22/D	Neguko kirolak	Kirolaria
79230117Q	930/22/D	Errugbia	Kirolaria
72745654N	899/21/D	Patinajea	Kirolaria
72844134Y	905/22/D	Kirol egokitua	Kirolaria
72465528A	924/22/D	Neguko kirolak	Kirolaria
72479170Y	926/22/D	Neguko kirolak	Kirolaria
16103895P	944/22/D	Hockeya	Kirolaria
44341937F	912/22/D	Txirrindularitza	Kirolaria
15374641S	143/22/T	Eskubaloia	Teknikaria
78738903J	144/22/T	Arrauna	Teknikaria
44561123A	139/22/T	Piraguismoa	Teknikaria
34101698N	135/21/T	Piraguismoa	Teknikaria
72466403G	134/21/T	Surfa	Teknikaria
14579907T	138/22/T	Taekwondo	Teknikaria
44163207X	141/22/T	Neguko kirolak	Teknikaria
44163206D	142/22/T	Neguko kirolak	Teknikaria
72495320X	137/21/T	Txirrindularitza	Teknikaria

2022ko ekainaren 21a, asteartea

NAN	Esp. Zenbakia	Modalitatea	Kategoria
14572669F	32/22/J	Herri kirolak	Epailea
78942795X	33/22/J	Futbola	Epailea
78909963E	34/22/J	Futbola	Epailea
16297533D	35/22/J	Futbola	Epailea
16298551S	36/22/J	Hipika	Epailea
30593546G	37/22/J	Mahai tenisa	Epailea

## II. ERANSKINA

## GOI-MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILE IZENDATU EZ DIRENEN ZERRENDA

NAN zenbakia	Exp. zenbakia	Kirol modalitatea	Ukatzeko arrazoia
78947396B	915/22/D	Hockeya	<p>Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren I. eranskinaren arabera, baloratu beharreko emaitzak eskaera egin duen urtekoak eta aurreko urtekoak izan beharko dira. Hau da, 2021eko eta 2022ko emaitzak.</p> <p>Aurkezten duen lehiaketaren emaitza 2019koa da. Beraz, lehiaketa hori ez da kontutan hartuko.</p>
72857782S	928/22/D	Padela	<p>Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren I. eranskinaren arabera, kontuan hartuko dira Munduko Txapelketako, Europako Txapelketako eta/edo Olinpiar Jokoen mailako lehiaketak. Aurkezten duen lehiaketa Eurochampions Trophy da. Euskadiko Federazioari kontsulta egin ondoren, kirol honetan baloratu beharreko Europako txapelketa Bilbon 2021eko irailean egindako txapelketa da.</p>
73421294G	946/22/D	Pilota	<p>Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren 4. artikulua araber, goi-mailako kirolari izateko honako baldintza hauek bete behar ditu:</p> <p>b) Euskal herritarra izatea, Autonomia Estatutuan xedatutakoaren arabera, interesdunak edo dagokion federazioak eskaera egin baino urtebete lehenagotik gutxienez.</p> <p>Ez da euskal herritar politikoa.</p> <p>c) Euskadiko kirol-federazio batek emandako kirol-lizentziarekin lehiatzea.</p> <p>Ez du euskal lizentziarik.</p>
79461513D	920/22/D	Atletismoa	<p>Aurkezten duen lehiaketa XLI Maratón Valencia Trinidad Alfonso EDP 2021 da. Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren I. eranskinaren arabera, kontuan hartuko dira Munduko Txapelketa, Europako Txapelketa eta/edo Olinpiar Jokoen mailako lehiaketak. Beraz, lehiaketa hori ez da baloratu beharreko lehiaketa bat. Bestalde, munduko rankingeko egungo postua 76.a da. Rankingean lehen 20en artean egotea eskatzen da.</p>

NAN zenbakia	Exp. zenbakia	Kirol modalitatea	Ukatzeko arrazoia
73031475N	933/22/D	Errugbia	<p>Aurkezten duen lehiaketa 2021eko Europako errugbi txapelketa da. Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren I. eranskinaren arabera: Ebaluazio Batzordeak, Europako Txapelketa batean lortutako emaitza baloratu dezake baldintza hauek guztiak batera betetzen baditu:</p> <p>a) Dagokion nazioarteko federazioak antolatua izatea. b) Programa olinpikoan sartuta ez dauden modalitateetako B eta C taldeetako lehiaketan kasuan, gutxienez 8 herrialde ordezkatuta egotea.</p> <p>2022ko Europako XV. Errugbi Txapelketan, B Multzoko gisa baloratu beharreko lehiaketan, 3 herrialdek parte hartzen dute, 8 herrialdek eskatzen duten gutxienezko bete gabe.</p>
45994118Y	942/22/D	Txirringarritza	<p>Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren arabera, errendimenduagatik eta saillapenagatik munduko edo Europako onenen artean daudenak goi-mailako kirolariak izango dira, dagozkien kirol-modalitate eta -diziplinetan, dekretu honetan eta I. eranskinan ezarritako hautaketa-irizpideen arabera. Aurkezten duen lehiaketa Bizkaiko txapelketa da. Beraz, Txapelketa hori ez da kontutan hartuko.</p>
79135108C	904/22/D	Hipika	<p>Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren I. eranskinaren arabera, banakako proba olinpikoko (C taldea) kategoria txikiagoko Europako Txapelketan, baloratu beharreko emaitza gisa, lehenengo 8en artean geratzea eskatzen da. Aurkezten duen emaitza Europako Txapelketa horretan parte hartu izana da, eta ez du eskatutako emaitza-irizpidea betetzen.</p>
16109053Z	932/22/D	Errugbia	<p>Aurkezten duen Txapelketa lagunarteko partida da. Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren arabera, interesdunak txapelketa ofizialetan lortutako emaitzak egiaztatu behar ditu. Joko olinpikoen mailako lehiaketetan, Munduko Txapelketan edo Europako Txapelketan.</p> <p>Beraz, txapelketa hori ez da kontuan hartuko.</p>

NAN zenbakia	Exp. zenbakia	Kirol modalitatea	Ukatzeko arrazoia
58016707N	900/22/D	Pilota	<p>Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren eranskinaren arabera:</p> <p>Ebaluazio Batzordeak, Europako Txapelketa batean lortutako emaitza baloratu dezake baldintza hauek guztiak batera betetzen baditu:</p> <p>a) Dagokion nazioarteko federazioak antolatua izatea.</p> <p>b) Programa olimpikoan sartuta ez dauden modalitateetako B eta C taldeetako lehiaketan kasuan, gutxienez 8 herrialde ordezkaturata egotea.</p> <p>Junior mailako Europako Pilota Txapelketako lehiaketan, proba ez-olimpiko gisa baloratu beharreko lehiaketan, bere proban ez daude 8 herrialde ordezkaturata, 6 herrialde baizik.</p> <p>2021eko 21 urtez azpiko Europako Frontball Txapelketan, proba ez-olimpiko gisa baloratu beharreko lehiaketa horretan, ez dira 8 herrialde ordezkaturata, 2 herrialde baizik.</p>
72592130J	941/22/D	Pilota	<p>Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren eranskinaren arabera:</p> <p>Munduko Txapelketa bateko emaitza Ebaluazio Batzordeak baloratu ahal izateko, beharrezkoa izango da Txapelketa horrek forma-baldintza hauek betetzea:</p> <p>a) Dagokion nazioarteko federazioak antolatua izatea.</p> <p>b) Programa olimpikoan sartuta ez dauden modalitateen taulako C taldeko lehiaketan kasuan, gutxienez 8 herrialde ordezkaturata egotea.</p> <p>2021eko Munduko 24 urtez azpiko Zesta Txapelketan, proba ez-olimpiko gisa baloratutako lehiaketa honetan, ez dira 8 herrialde ordezkaturata, 2 herrialde baizik.</p>
32051079G	919/22/D	Txirringularitza	<p>Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren I. eranskinaren arabera, D multzoko Munduko Txapelketan lehen hiruren artean geratzea eskatzen zaio. Lortutako postua, berriz, 8.a da. Ez du eskatzen den gutxienerako postua betetzen.</p>
Y3188560S	917/22/D	Atletismoa	<p>Aurkezten duen lehiaketa 2022ko Sevillako Zurich Maratoia da. Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren I. eranskinaren arabera, kontuan hartuko dira Munduko Txapelketa, Europako Txapelketa eta/edo Olinpiar Jokoak mailako lehiaketak. Beraz, lehiaketa hau ez da baloratu beharreko lehiaketa bat. Munduko rankingean 133. postuan dago gaur egun. Rankingean eskatzen den postua lehen 20koa da.</p>

2022ko ekainaren 21a, asteartea

NAN zenbakia	Exp. zenbakia	Kirol modalitatea	Ukatzeko arrazoia
79130039B	943/22/D	Pilota	<p>Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren eranskinaren arabera:</p> <p>Munduko Txapelketa bateko emaitza Ebaluazio Batzordeak baloratu ahal izateko, beharrezkoa izango da Txapelketa horrek forma-baldintza hauek betetzea:</p> <p>a) Dagokion nazioarteko federazioak antolatua izatea. b) Programa olinpikoan sartuta ez dauden modalitateen taulako C taldeko lehiaketen kasuan, gutxienez 8 herrialde ordezkaturik egotea.</p> <p>2021eko Munduko 24 urtez azpiko Zesta Txapelketan, proba ez-olimpiko gisa baloratu beharreko lehiaketa, bere proban ez daude 8 herrialde ordezkaturik, 2 herrialde baizik.</p>
72838102T	940/22/D	Surfa	Dokumentazioa falta da.
44342508A	931/22/D	Errugbia	<p>Aurkezten duen lehiaketa Rugby 7s International Tournament da. Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren I. eranskinaren arabera, kontuan hartuko dira Munduko Txapelketako, Europako Txapelketako eta/edo Olinpiar Jokoetako mailako lehiaketak. Beraz, lehiaketa hau ez da kontutan hartuko.</p>
20234672P	938/22/D	Arrauna	<p>Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzeko buruzko Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren I. eranskinaren arabera, taldeko proban, kategoria goreneko aurreko kategorian lehiatzen direnak (C multzoa) Munduko Txapelketan lehenengo 8en artean geratzea eskatzen zaio. Lortutako postua, berriz, 11.a da. Ez du eskatzen den gutxieneko postua betetzen.</p>
79134024V	910/22/D	Eskubaloia	<p>17 urtez azpiko Europako Txapelketa (Women's Younger Age Category Events-W17 Championship 2021) bigarren mailako txapelketa da. Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren arabera, errendimenduagatik eta sailkapenagatik munduko edo Europako onenen artean daudenak goi-mailako kirolariak direla deklaratu da, dagozkien kirol-modalitate eta -diziplinetan, dekretu honetan eta I. eranskinean ezartzen diren hautaketa-irizpideekin bat etorritik. Parte hartu duen txapelketa ez da maila goreneko lehiaketa.</p>
32695271N	935/22/D	Kirol egokitua	<p>Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren I. eranskinaren taularen arabera (D multzoa), lehenengo hiruren artean geratu behar da. Lortutako postua, berriz, 4.a da. Ez du eskatzen den gutxieneko postua betetzen.</p>

NAN zenbakia	Exp. zenbakia	Kirol modalitatea	Ukatzeko arrazoia
79139070A	945/22/D	Saskibaloia	Aurkezten duen lehiaketa klubaren arteko Eurocup women 2022 txapelketako partida bakarra da. Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren I. eranskinaren arabera, kontuan hartuko dira Munduko Txapelketako, Europako Txapelketako eta/edo joko olinpikoetako mailako lehiaketak, guztiak selekzioenak. Beraz, lehiaketa hori ez da kontutan hartuko.
72853615B	918/22/D	Atletismoa	Aurkezten duen txapelketa Europako nazioen arteko txapelketa da (European Team Championships 2021 Super League). Lehiaketaren emaitza parte-hartzaileen postu guztien batura da, eta lehiaketa hori proba ez-olinpiko gisa hartzen da (B multzoa). Selekzioak lehiaketa horretan lortutako emaitza 5. postua da, baina lehenengo 4 postuen artean geratzen eskatzen da.
72741484	894/21/D	Mendia	Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren eranskinaren arabera:  Ebaluazio Batzordeak, Europako Txapelketa batean lortutako emaitza baloratu dezake baldintza hauek guztiak batera betetzen baditu:  a) Dagokion nazioarteko federazioak antolatua izatea. b) Programa olinpikoan sartuta ez dauden modalitateetako B eta C taldeetako lehiaketen kasuan, gutxienez 8 herrialde ordezkatuta egotea. Europako Ultra Skyrunning Txapelketan (Pisaoextreme), B Multzoa bezala baloratu beharreko lehiaketan, proban ez daude 8 herrialde ordezkatuta, 7 herrialde baizik.
44140487Z	136/21/T	Kirol egokitua	Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren 6.1. d) artikulua. Goi-mailako teknikaria izateko, honako titulazio hau bete behar du: urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan aurreikusitako Goi Mailako Kirol Teknikari titulazioa, edo horiek ordeztzen dituen edozein titulazio akademiko (1363/2007 Errege Dekretua, erregimen bereziko kirol-irakaskuntzen ordenamendu orokorra ezartzen duena.  I. Mailako bocciako titulua aurkezten du.  Aurkeztutako titulazioak ez ditu betetzen Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren 6.d artikuluan ezarritako baldintzak, eta 3. maila izan beharko luke, aipatutako goi-mailako kirol-teknikariaren baliokidea.



NAN zenbakia	Exp. zenbakia	Kirol modalitatea	Ukatzeko arrazoia
36132672V	140/22/T	Errugbia	Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren 6.1. d) artikulua. Goi-mailako teknikaria izateko, honako titulazio hau bete behar du: urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan aurreikusitako Goi Mailako Kirol Teknikari titulazioa, edo horiek ordeztan dituen edozein titulazio akademiko (1363/2007 Errege Dekretua, erregimen bereziko kirol-irakaskuntzen ordenamendu orokorra ezartzen duena. Errugbiko III. mailako titulua aurkeztu du, Espainiako Errugbi Federazioak emana (federaziokoa). Aurkeztutako titulazioa ez dator bat Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren 6.d artikuluan ezarritako betekizunekin. Federazio-izaerako prestakuntza da, beraz, ez du Urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan aurreikusitako goi-mailako teknikariaren kirol-titulazioa betetzen.